

Txomin joan zaigu

Txomin Ziluaga Arrate hil dela diost Edurnek. Telefono madarikatu horrek berri txarrak besterik ez digu ematen azken boladan.

Txomin, iraultzaile zintzoa, abertzalea, borrokalari nekaezina, munduko langile eta herrien borrokekin beti bat egin duena. Eta joan zaigu justu gure herriak askatasunaren bidean beste aurrerapausu galanta eman duenean. Galanta diot, bai, eraikitzen ari garen eredu eraldatzailea bide onetik abiatzen ari delako.

Belaunaldi heroiko baten partaide, Txominek gure herriaren alde dena eman dutenekin egin du ibilbidea. Nola ahaztu Santi, bihotzeko Santi, Jon... eta izenik gabekoak.

Aurrera egiteko badugu zer ikasi gure aurrekoetaz, eta hor izango dira Txominen irakaspenak ere. Gure haurrek biharko ikastoletan beraien izenak ikasiko dituzte. Hori da gure ardura.

Martin Garitano